



ORFEON DONOSTIARRA
DONOSTIAKO ORFEOIA

**DONOSTIAKO ORFEOIAREN JARDUERAK
2015**

Orfeoiak 39 kontzertu hitzartu ditu 2015erako; horietan lehena Gijónen egin du jada. Programatutako **bost kontzertu nazioartean egingo ditu**, Frantziako hainbat hiritan zehazki (**Toulouse, Paris, Carcasona, Perpinyà eta Montpellier**). Hiru emanaldi izango ditu **Musika Hamabostaldian**, beste bat **Santanderreko Jaialdian**, hiru irteera **Madrilera**, bost kontzertu **EOSekin Iruñean, Bilbon, Gasteizen eta Donostian**, bai eta hainbat autonomia-erkidegotako beste agertoki batzuetan programatutakoak eta **José María Usandizagaren heriotzaren mendeurrena** ospatzeko antolatutakoak ere.

Urteko lehen bira, Frantziara

- Otsailean, [Toulouseko Halle aux Grains](#) aretora joango da abesbatza, eta hilaren 5ean **Berlioz** konpositorearen *Requiem*a eskainiko du [Toulouseko Kapitolioko Orkestra Nazionalarekin](#) batera [Tugan Sokhiev](#) zuzendariaren agindupean.

- Biharamunean, bi musika-taldeek egitarau bera eskainiko dute [Philharmonie 1 auditoriuma](#) inauguratzeko kontzertuen barruan. **Parisko** Cité de la Musique eraikinean egin dute aipatutako auditoriuma.

MediciTV musika klasikoko kate digitalak grabatuko du Toulouseko kontzertua, eta Radio Classique irratiak Pariskoa.

20 urtetik gora behar izan dituzte Jean Nouveren auditorium berria eraikitzeko. Auditorium handia alde batera utzi zuten Cité de la Musique 1994an ireki zutenean; horren barnean goi-mailako kontserbatorioa, modularra esaten dioten ganberako auditoriuma, musikaren museoa eta beste ekipamendu batzuk zeuden. Azkenik, Philharmonie, hemendik aurrera horrelaxe deituko baita Cité de la Musique, bi eraikinetan dauden hiru oinarrizko gunek eratuta gelditu da: Philharmonie 1 areto handia, 2.400 lagunentzako edukiera duena (han abestuko du Orfeoiak); Philharmonie 2 deitutako areto modularra, 900 aulki dituen (Christian de Portzamparcek diseinatu zuen); eta orain Amphithéâtre deitu dutena (Musikaren Museoaren lehengo aretoa, alegia), 250 toki dituen. Hor egoitza izango duten bi orkestrez gain (Parisko Orkestra eta Ensemble intercontemporain), gune horrek beste hiru talde gehiago ere hartuko ditu: Parisko Ganberako Orkestra, Île de France Orkestra Nazionalea eta Les Arts Florissants.

Jean Nouvel arkitektoak eta bere taldeak, Philharmonie 1 diseinatzeko orduan, antolaera frontal hertsia saihestu dituzte (zapata-kaxa esaten diete horrelakoei), eta entzuleak eszenaren inguruan egotea lehenetsi dute, era horretan interpretatzaileen eta entzuleen arteko intimitate-sentsazioa indartzeko.

Uda Frantziako jaialdietan

Uztailean Frantziako jaialdi hauetan parte hartuko du Orfeoiak: [Carcasona](#) eta [Radio France-Montpellier](#).

- Hilaren 10ean, abesbatza eta **Toulouseko Kapitolioko Orkestra Nazionale Sainz Alfaren** esanetara jarriko dira Carcasonako Erdi Aroko hiriko anfiteatroan **Carl Orffen *Carmina Burana*** interpretatzeko. Hamargarren edizioa egin behar duen lehiaketa gazte horrek bere baitan opera, dantza, antzerkia, jazz edo pop musika hartzen ditu. Guztira 120tik gora jarduera ditu, eta horietatik 80 doakoak dira.
- Hilaren 22an, abesbatza **Perpinyàra** joango da piano-kontzertu bat emateko (egitaraua zehaztu gabe oraindik) **Radio France-Montpellier jaialdiaren** barruan.
- Jaialdi berean, 25ean **Beethovenen *Bederatzigarrena*** abestuko du **Montpellierreko Orkestra Nazionalarekin** batera eta **Christian Arming** zuzendariaren esanetara **Montpellierreko** Berlioz Kongresu Jauregi-Operako **Le Corum auditoriumean**. Leku berean eta orkestra berarekin batera, Orfeoia bitan interpretatu zuen 2011n Monteverdiren **Orfeo**.

Radio France-Montpellier jaialdiak 130.000 ikusle inguru izaten ditu udaro. Languedoc-Roussillon eskualde frantseseko berrogeita hamar hiri eta herritan garatzen ditu bere programa eta zikloak. Bertako taldeek osatzen dute haren bizkarrezurra; hau da, Frantziako Orkestra Nazionalak, Radio Franceko Filarmonikak eta Radio Franceko abesbatzak, baina atzerriko beste orkestra eta abesbatza batzuei ere irekitzen dizkiete ateak, eta horixe gertatu da Orfeoiarekin, 2012 eta 2014ko edizioetan ere kontratatu baitzuten.

Hamabostaldia eta Santanderreko jaialdia

- **Musika Hamabostaldian** egin beharreko hiru emanaldietako lehena abuztuaren 18an izango da: Prokofiev musikariaren ***Alexander Nevsky***, **San Petersburgoko Orkestra Filarmonikoarekin** eta **Yuri Temirkanov** maisuarekin, 1882an sortutako orkestraren titularrarekin, alegia (Errusiako orkestra sinfonikorik zaharrena da, beraz). Oso eroso sentitzen dira abesbatzako kideak lan horrekin, 1983tik interpretatu baitute. Eisenstein zinemagilearen aginduz konposatu zuen Sergei Prokofievek haren lehen soinudun filmerako, baina ezin izan zuten distira osoz entzun zinema-aretoetan. Gai abertzalea zuenez, Stalinekin filma atzeratu zuen Alemania naziarekin elkarri ez erasotzeko hitzarmena sinatu ondoren, baina, gerrak hasteko itxura guztia zuenean, berehala proiektatzeko agindu zuen atzera. Musika hori gerora kantata epiko modura berregiteak filmak eman ezin izan ez zion ospea eman zion nazioartean.

Orfeoia, San Petersburgoko Filarmonika eta horren zuzendaria batera aritu ziren 2012ko Musika Hamabostaldian Prokofieven ***Ivan Izugarria*** lanean.

Errusiako orkestra-zuzendaritzaren pertsona garrantzitsuenetako bat da Yuri Temirkanov. San Petersburgoko Filarmonikaren zuzendari titularraren kargua (1988tik bete du) baliteke bere herrialdeko musika-bizitzaren gutiziatuena izatea. Aurrez Operaren Antzokiaren eta Kiroveko Balletaren musika-

zuzendaria izan zen (gaur egungo San Petersburgoko Mariinski antzokia). AEBetan zuzendari aritu zen lehen sobietarra izan zen, 1988an, AEBen eta Sobietar Batasunaren arteko kultura-harremanei berriro ekin zietenean (Errusiak Afganistan inbaditu zuenean bertan behera utzi zituzten). Urtebete geroago, Baltimoreko Orkestra Sinfonikoaren titulartasuna erdietsi zuen Temirkanovek, eta postu horretan egon zen 2006ko sasoirarte. Denbora horretan orkestra indarberritu eta Estatu Batuetako musika-talderik onenetako bat bihurtu zuen. Gaur egun San Petersburgoko lana eta Danimarkako Orkestra Sinfoniko Nazionalaren zuzendari gonbidatu nagusiaren kargua txandakatzen ditu.

- Hamabostaldian egin beharreko bigarren emanaldia abuztuaren 25ean izango da **Rossiniren *Stabat Mater*** lanarekin, [Cadaquéseko Orkestrarekin](#) eta **Alberto Zeddaren** zuzendaritzapean. Rossiniren lanen aditu handienetako bat da aipatutako zuzendaria. Programa bera interpretatuko dute biharamunean [Santanderreko jaialdian](#).

Rossiniren *Stabat Mater* lana 1907tik dago Orfeoia errepertorioan, Esnaolaren garaitik aiegia, eta urte horietan 26 aldiz interpretatu du zuzendari eta orkestra ezberdinekin eta agertoki ezberdinetan. Orain arte, Milango Alberto Zedda maisuak ez du Orfeoia inoiz zuzendu. 86 urte ditu Zeddak baina Rossinirekiko pasioa agertzen du oraindik ere; hain zuzen, konpositore horri eskaini dio zuzendari eta musikologo gisa garatutako karreraren zati handiena 1950eko hamarkadaren erdialdean Milango Scala antzokian *Sevillako Bizargina* lanarekin debut egin zuenetik.

Cadaquéseko orkestrarekin, aldiz, 2006ko Hamabostaldian abestu zuen Orfeoia Mozarten *Requiem*. Kataluniako talde hori 1988an sortu zuten Espainiako eta Europako beste herrialde batzuetako musikari gazte talde bat oinarri hartuta. Besteak beste, Sir Neville Marriner, Gennady Rozhdestvensky edo Philippe Entremont zuzendariak babestu zuten proiektua eta gonbidatu nagusi bihurtu ziren, eta hala ere egin zuten Alicia de Larrochak, Victoria de los Ángeles, Teresa Berganzak, Paco de Lucía edo Ainhoa Artetak, beste batzuen artean. Hainbat grabazio ditu eta umeentzako musika klasikoari buruzko bilduma bat sortu du: «Solfa la Redonda».

- Abuztuaren 28an, Hamabostaldira itzuliko da abesbatza Brahms konpositorearen ***Requiem alemana*** lana interpretatzeko [Koloniako WDRko Orkestra Sinfonikoarekin](#) batera eta [Jukka-Pekka Sarasteren](#) zuzendaritzapean.

Koloniako Irratiko Orkestra Sinfonikoa ere esaten dioten talde hori 1947an sortu zuten, eta ospetsua da XX. mendeko musika interpretatzeagatik. Europako irratiko orkestra nagusietako bat da, eta T. Koopman, C. Hogwood eta R. Goebel zuzendariak, besteak beste, ohiko laguntzaile izaten ditu. Jukka-Pekka Saraste da zuzendari titularra 2010-2011ko sasoiatik. Maisu finlandiar horrek jada zuzendu zuen Orfeoia 2011n Koloniako Irratiko Orkestra Sinfonikoarekin batera Beethovenen ***Bederatzigarrena*** interpretatu zuenean.

Jukka-Pekka Saraste Finlandiako Irratiko Orkestra Sinfonikoaren titularra izan da 1987tik 2001era arte, eta gainera, Torontoko Orkestra Sinfonikoaren musika-zuzendaria eta BBCko Orkestra Sinfonikoaren zuzendari gonbidatu nagusia ere izan da. 2006ko abuztutik Osloko Filarmonikaren musika-zuzendaria da. Tammisaari jaialdia sortu zuen Finlandiako Ganberako Orkestrarentzat. Horrez gain, Lahtiko Orkestra Sinfonikoaren musika-aholkularia ere bada, Finlandian hori ere.

Uzandizagaren urtea

José María Usandizagaren heriotzaren mendeurrena ospatzeko hirian sortutako batzorde bereziak programatutako jardueren barruan hiru kontzertu emango ditu Orfeoia, azaroan, Victoria Eugenia antzokian. Kontzertu horietan **Enarak** opera interpretatuko du, kontzertu-bertsioan, [Musikeneko Orkestra Sinfonikoarekin](#) batera. Antzoki horretan bertan estreinatu zen lan hori Donostiako 1914an Donostiako Orkestra Sinfonikoarekin eta Orfeoiarekin berarekin batera.

Abesbatzak harreman kutuna izan zuen konpositore donostiarrarekin hil zen arte. Haren lan nagusiak abesbatzaren erreperitorioan egon dira sortu zenetik. Besteak beste, *Mendi-Mendiyan* operaren *Ave Maria* kanta, baita opera osoa ere, edo *Euskal Herri maitiari*, *Eguntho batez*, *Umezurtza* eta *Enarak*, azken hori haren anaia Ramón Usandizagaren zuzendaritzapean interpretatuta sarritan.

2014 ZENBAKITAN

Kontzertuak guztira: 36

- Sinfonikoak: 19
- Polifonia-folklorea eta beste batzuk: 17
- Euskadi: 17
- Beste autonomia-erkidego batzuk: 14
- Atzerrian: 5
- Txikia eta Gaztea: 23

Grabaketak:

- Orfeoi Txikia eta Orfeoi Gaztea: 1

Arduraldiak guztira: 192

Entseguak egoitza sozialean: 117

Entseguak beste egoitza batzuetan: 42

Bidaia- eta kontzertu-egunak: 62

Irakaskuntza-jardueren ikasleei emandako eskola-orduak: 3.409

Orfeoian parte hartzen dute:

Donostiako Orfeoiaren abeslari kopurua: 185

Orfeoi Txikiaren abeslari kopurua: 130

Orfeoi Gaztearen abeslari kopurua: 58
Eskola-abesbatzen abeslari kopurua: 390
Biolin- eta Biolontxelo-eskoletako ikasle kopurua: 32
Musika-tailerretako ikasle kopurua: 141

OROTARA: 936 pertsona

2014an, Orfeoiak **36 kontzertu** eman zituen: 5 atzerrian, Frantziako Toulouse, Paris, Agde eta Montpellier hirietan, 19 Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan (horietako 7 helburu solidariokoak) eta beste 14 beste autonomia-erkidego batzuetan.

Bi bira egin ditu Tugan Sokhiev eta Toulouseko Kapitolioko Orkestra Nazionalarekin. Lehen bira, otsailean, **Mussorgskyren Boris Godounov** opera, kontzertuko bertsioan, interpretatuta hasi zen **Toulouseko** Halle aux Grains aretoan, ondoren **Parisko** Pleyel aretoan, **Iruñeko** Baluarte auditoriumean jarraitu zuen, eta azken emanaldia **Oviedoko** Príncipe Felipe auditoriumean izan zen hilaren 10ean. Ekainean, Orfeoiko ahots zuriak **Toulouseko** Halle aux Grainsera itzuli ziren eta, ekainaren 28an, **Mahlerren 3. sinfonia** interpretatu zuten bertako orkestrarekin.

Halaber, atzerriko emanaldien artean, nabarmentzekoa da uztailean **Radio France-Montpellier jaialdiaren 30. edizioan** bi kontzertu eman zituela, **Agden** bata eta **Montpellierren** bestea. Lehenengo hirian Orfeoiak, Sainz Alfaroren zuzendaritzapean, askotariko programa bat eskaini zuen, pianoak lagunduta. Montpellierreko Opera Berlioz auditoriumean, **Ruggero Leoncavallo** konpositore napolitarraren **Zingari** opera interpretatu zuen, lehen aldiz eta kontzertu-bertsioan, **Orquesta Simfònica de Barcelona i Nacional de Catalunyaarekin** eta **Michele Mariottiren** zuzendaritzapean. France Musique irrati-kateak eta Europako Irrati-Telebista Batasunak zuzenean eman zuten.

Musika Hamabostaldian bi kontzertu eman zituen. Abesbatza **Sokhievekin** eta **Toulouseko Kapitolioko Orkestra Nazionalarekin** elkartu zen berriz eta 75. edizioa inauguratu zuten Berliozen **Faustoren kondenazioaz**. Verdiren *Requiema* ere interpretatu zuen **Rotterdameko Orkestra Filarmonikoak** lagunduta eta **Yannick Nézet-Séguin** kanadarrak zuzenduta.

Uztailean, **Torre Viejo**ko **Habaneren eta Polifoniaren Nazioarteko 60.** edizioko inaugurazio-galan parte hartzera gonbidatu zuten Orfeoia. TVEk kontzertua grabatu zuen, gero TVEren 2. katean, HD katean eta nazioarteko katean emateko. Azkenik, udako lehiaketetako emanaldiak amaitzeko, **Cambrilseko jaialdian** parte hartu zuen.

Madrilgo Auditorium Nazionalean bost kontzertu eman zituen. Bi ekainean A+música ziklorako, eta beste bi, urriaren 10ean eta 11n, parte hartzekoak, beste 400 ahots afizionaturekin eta Madrilgo Orkestra Filarmonikoarekin batera, **Sainz Alfaroren zuzendaritzapean**. Azken kontzertu horietan Carl Orffen **Carmina Burana** interpretatu zuten. Azkenik, urtea amaitzeko, abenduaren 22an, **Haendelen Mesias** lana, **Andrés Segovia**

Ganbera Orkestrarekin eta **Sainz Alfaro** zuzendariarekin, Juventudes Musicales denboraldian.

Hainbat autonomia-erkidegotan egindako kontzertuetan, Figueresen **Gala-Salvador Dalí fundazioarentzat** emandakoa eta Eivissako Can Vemtosa auditoriumean emandako bi kontzertu.

Kontzertu solidarioei dagokienez, zazpi eman zituzten guztira modu erabat altruistan: **Errenteriako Musika Kultur Elkartearen Bandaren** (EMKE) 150. urteurrenean; Sanfilippo gaitzari aurre egiteko **Stop Sanfilippo Fundaziorako** Tolosan; **Ayete Ikastetxe Nagusirako**; **Arrasateko Goikobalu Abesbatzaren** 25. urteurrenean; **Gipuzkoako Medicus Mundiren** 40. urteurrenean; **Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen** 250. urteurrenean eta **Gipuzkoako Elikagai Bankurako**.